# Xedapen Orokorrak

## JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

### Zk-2171

4/2002 LEGEA, martxoaren 27koa, 2001/2004 Euskal Estatistika Plana onartu eta Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko Legea aldatzen duena.

Eusko Legebiltzarrak urtarrilaren 23ko 1/2002 Legea onartu duela jakinarazten zaie Euskadiko herritar guztiei.

4/2002 LEGEA, MARTXOAREN 27KOA, 2001/2004 EUSKAL ESTATISTIKA PLANA ONARTU ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ESTATISTIKARI BURUZKO LEGEA ALDATZEN DUENA.

ZIOEN ADIERAZPENA

Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legeak herri-erakundeek arlo honetan izan behar duten jarduera arautu, jarduera hori garatzeko behar den antolamendua eratu eta herrialde historikoetako eta Autonomia Erkidegoko gainerako herri-erakundeetako estatistikekin uztartzeko neurriak jasotzen ditu.

Baina legeak ez du gai hori agortzen. Zioen adierazpenean jartzen duenez, osagarri batzuk ere izango ditu: Euskal Estatistika Plana onartu behar duen legea, urteko estatistika-egitarauak eta, erregelamendu-mailako beste araurik onartzen bada, haiek ere bai.

Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko 4/1986 Legean aurreikusitakoaren arabera, Euskal Estatistika Plana denbora-tarte batean Autonomia Erkidegoko estatistika-jarduera arautzeko balio duen tresna da.

Gaur arte, Eusko Legebiltzarrak 1989/1992, 1993/1996 eta 1997/2000 denbora-tarteetarako planak onartu ditu. Planek berek eta planak garatzeko urteko egitarauek zehaztu dute denbora-tarte bakoitzean zein estatistika egin behar zen, nork egin behar zituen, eta zein baldintza teknikotan. Plan horietako azkena aurki iritsiko da amaierara, eta Eusko Legebiltzarrak beste bat onartu behar du.

Aurrekoarekin bat, lege honek 2001/2004 Euskal Estatistika Plana onartzen du.

Legearen lehen kapituluan planaren edukia eta indarrean noiz arte egongo den zehazten da. Era berean,

# Disposiciones Generales

## PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

### N°-2171

LEY 4/2002, de 27 de marzo, por la que se aprueba el Plan Vasco de Estadística 2001/2004, y se modifica la ley de Estadística de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Se hace saber a todos los ciudadanos y ciudadanas de Euskadi que el Parlamento Vasco ha aprobado la siguiente

LEY 4/2002, DE 27 DE MARZO, POR LA QUE SE APRUEBA EL PLAN VASCO DE ESTADÍSTICA 2001/2004, Y SE MODIFICA LA LEY DE ESTADÍSTICA DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI.

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

La Ley 4/1986, de 23 de abril, de Estadística de la Comunidad Autónoma de Euskadi, regula la actuación pública en dicha materia, determina la organización dedicada a su desenvolvimiento y dispone de las medidas de articulación con las estadísticas de los territorios históricos y demás entes públicos comprendidos en el ámbito territorial de la Comunidad.

Sin embargo, la citada ley no agota su objeto material. A este respecto, su exposición de motivos señala que la misma se verá complementada por la ley que apruebe el Plan Vasco de Estadística y por los programas estadísticos anuales, así como por otras normas reglamentarias que pudieran dictarse.

A tenor de lo previsto en la Ley 4/1986, de Estadística de la Comunidad Autónoma de Euskadi, el Plan Vasco de Estadística es el instrumento ordenador de la actividad estadística de la Comunidad Autónoma durante un período de tiempo.

Hasta la fecha el Parlamento Vasco ha aprobado los planes relativos a los períodos 1989/1992, 1993/1996 y 1997/2000. Estos planes y sus programas anuales de desarrollo han determinado las estadísticas a realizar en cada período, por quién se iban a llevar a cabo, y en qué condiciones técnicas. El último de estos planes va a agotar próximamente su vigencia, por lo que procede que el Parlamento Vasco apruebe uno nuevo.

De acuerdo con estas premisas, mediante la presente ley se procede a aprobar el Plan Vasco de Estadística 2001/2004.

El capítulo primero de la ley prevé el contenido y la vigencia del plan. Asimismo, se configuran los progra-

urteko estatistika-egitarauei berebiziko garrantzia ematen zaie, tresna modura, hor zehazten baita eragiketak nolakoak izango diren.

Legearen eranskinean, gainera, eragiketa bakoitzari kode bat ematen zaio, eta honako ezaugarri hauek ere zehazten dira:

a) Helburu orokorrak. Urteko estatistika-egitarauetan garatuko dira, eta ikertu beharreko aldagaiak ere egitarau horietan zehaztu eta definituko dira.

b) Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko 4/1986 Legeren II. tituluko hirugarren kapituluko aginpidea dela-eta, zein den erakunde arduraduna. Lege horretako 35. artikuluan Euskal Autonomia Erkidegoko estatistika-antolakundeko organo eta erakunde batzuk aipatzen dira, eta organo eta erakunde horien artean bakarrik banatzen da aginpide hori.

c) Beste erakunde parte-hartzaile batzuk. Elkarrekin parte hartzeko aukera dago, bai eragiketa osoan zehar, bai eragiketaren aldiren batean.

d) Gai-arloa. Ikerketa zein jarduera-esparrutakoa den zehaztea da kontua.

e) Egoera. Jakin behar da estatistika-eragiketa lehenagotik esperimentaturik dagoen, hots, behin eta berriz eginik dagoen, edo lehenengo saiakuntza den.

f) Emaitzak zenbatean behin zabalduko diren. Emaitzen berri zenbatean behin izango duen jakinarazten zaio administratuari, lana zenbatean behin egiten den alde batera utzita (informazioa bildu egin behar baita behin eta berriz, eta, gero, datu horiek landu).

g) Eragiketa-mota. Estatistika zein motatakoa den azaldu nahi da, batez ere informazio-bilketarik ote dakarren berekin (gidazerrenda, zentsua, inkesta), edo abiapuntu izan diren informazioei bestelako xehetasunik gehitzen zaien (bilketa, sintesia), edo tresna osagarriren bat ote den eta normalizazioa, metodologia hobetzea edo estatistika garatzea ote dakarren.

Planak dakartzan jarduerak direla-eta, legeak bi jarduera-mota bereizten ditu 3. artikuluan: estatistikako datuak lortzeko beharrezkoak direnak, eta administrazioko datuetatik estatistikak egitea. Lehenengoak Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko 4/1986 Legearen I. tituluan arauturik daudenak dira; eta bigarrenak, berriz, lege horretako 5.2 artikuluan daude jasota, estatistikarako aprobetxatzeko aukera moduan.

Ildo horretatik, ezin dugu ahantzi Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko 4/1986 Legearen zioen adierazpenean aldezturikoa, hots, estatistikak administrazio-datuetatik abiatuta ere egin behar direla, herri-administrazioak bere jardunbideak berritzeko

mas estadísticos anuales como instrumentos esenciales en los que se definen las características constitutivas de las operaciones.

Además, en el anexo de la ley se relacionan las operaciones con su código, conteniendo además las siguientes características:

a) Los objetivos generales, que alcanzan su desarrollo en los programas estadísticos anuales, correspondiendo a éstos la determinación y definición de las variables a investigar.

b) El organismo responsable, con incidencia en la competencia a que se refiere el Capítulo III del Título II de la Ley 4/1986, de Estadística de la Comunidad Autónoma de Euskadi, que únicamente se atribuye en el marco de los órganos y entes de la organización estadística de la Comunidad Autónoma de Euskadi previstos en el artículo 35 de la propia ley.

c) Otros organismos intervinientes, teniendo en cuenta que existe la posibilidad de coparticipación bien a lo largo de toda una operación, bien mediante la participación en algunas de las fases de que consta.

d) Área temática. Se trata de delimitar el campo genérico de actividad sobre el que recae la investigación.

e) La situación. Se trata de saber si la operación estadística está experimentada, porque se haya venido realizando sucesivamente, o está en su primera experiencia.

f) Periodicidad de la difusión de los resultados. Se trata de informar al administrado sobre la frecuencia con que se va a disponer de los resultados, con independencia de la periodicidad con que se trabaja, bien en forma de sucesivas recogidas de información o en el sucesivo tratamiento de datos.

g) Clase de operación. Con este extremo se intenta informar sobre la naturaleza de la estadística, particularmente si lleva implícita una recogida expresa de información (directorio, censo, encuesta), o si se trata de añadir valor a otras informaciones existentes de las que se parte (recopilación, síntesis), o si se trata de un instrumento auxiliar que suponga normalización, mejoras metodológicas o desarrollo estadístico.

Respecto a las actuaciones derivadas del plan, la ley distingue en su artículo 3 entre actuaciones necesarias para la obtención de datos estadísticos, y la realización de estadísticas a partir de datos administrativos. Las primeras son las reguladas en el Título I de la Ley 4/1986, de Estadística de la Comunidad Autónoma de Euskadi, en tanto que las segundas son las contempladas en el artículo 5.2 de dicha ley, como una posibilidad de aprovechamiento estadístico.

En este sentido, no puede olvidarse que la Ley 4/1986, de Estadística de la Comunidad Autónoma de Euskadi, propugna la producción de estadísticas a través de datos administrativos, a fin de rentabilizar al máximo los esfuerzos que realice la Administración públi-

egiten dituen ahaleginei atarramenturik handiena ateratzeko; horrela, kudeaketa- zein estatistika-xedeak aldi berean betetzen dira, eta administratuei ez zaie bi aldiz eskatzen informazio bera.

Hortaz, tartean diren organoek zer dioten kontuan harturik, plan bat egiteko estatistikoki aprobetxa daitezkeen administrazio-jarduerak zein izango diren aurreikusten du lege honek, eta kohesiorako beharrezko osagai batzuk ere badakartza, jarduera horiek benetako zeresana izan dezaten Euskal Autonomia Erkidegoko estatistika ofizialean, baina tartean diren organo eta erakundeei administrazio-aginpiderik batere kendu gabe.

Azkenik, lege honetako bosgarren xedapen gehigarrik dio, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko 4/1986 Legearen 7. artikulua aldatu dela, eta paragrafo berri bat, 5. paragrafoa, erantsi zaiola. Horren bidez lortu nahi da urteko estatistika-egitarauek planaren legeko eranskinean aurreikusitako ezaugarri batzuk aldatu ahal izatea, baldin eta aldaketa horiek ez badituzte ukitzen eragiketen izaera eta helburuak.

LEHENENGO KAPITULUA

PLANAREN EDUKIA ETA GARAPENA

***1. artikulua.***– Edukia.

1.– 2001/2004 Euskal Estatistika Plana lege honetako eranskinean jasota dauden estatistikak eta halako beste jarduera batzuk egiteko da, eta horixe du edukia.

2.– Aurreko puntuan aipatzen den estatistika-eragiketa bakoitzaren egituraketa urteko estatistika-egitarauetan ezarriko da, lege honen eranskinean zehazten diren ezaugarriak gordez, eta lege honetan bertan eragiketa bakoitzerako jartzen duen moduan.

3.– Urteko estatistika-egitarauetan zehaztu eta definituko dira esandako estatistika-eragiketen ezaugarriak, aurrekontuetako diru-hornidurak aintzat hartuta eta eranskinetan adierazitako helburu orokorrak –haietara ahalik eta ondoen egokitu beharko baitute– eta eskueran dauden diru-baliabideen eraginkortasuna kontuan edukita.

4.– Estatistika-eragiketa bat urteko estatistika-egitarauetan sartzeko, egitasmo tekniko bat eduki beharko da derrigor, edo, horrelakorik ez badago eta dena delako eragiketa ez baldin bada lehenago inoiz egin, oinarrizko metodologia-eskema bat beharko da eduki. Tresna bi horiek eragiketa bakoitzaren ezaugarriak ahalik eta gehien zehaztu beharko dituzte, eta Euskal Estatistika Erakundeak onartu beharko ditu martxan jarri aurretik.

5.– Aurreko paragrafoetan xedaturikoaz gainera, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko

ca para innovar sus procedimientos, de forma que sirvan al mismo tiempo a los fines de gestión y también a los fines estadísticos, evitando así en lo posible toda duplicidad de petición de información a los administrados.

Consecuentemente, teniendo en cuenta las manifestaciones de los órganos interesados, esta ley incluye las previsiones de actuaciones administrativas que puedan aprovecharse estadísticamente para la realización del plan, y establece los elementos de cohesión necesarios para que tales actuaciones sean relevantes en la estadística oficial de la Comunidad Autónoma de Euskadi, sin que ello suponga detrimento alguno en las competencias administrativas de los órganos y entes afectados.

Finalmente, la disposición adicional quinta de la ley prevé la modificación del artículo 7 de la Ley 4/1986, de Estadística de la Comunidad Autónoma, mediante la adición de un nuevo apartado 5. Se pretende que los programas estadísticos anuales puedan modificar alguna de las características previstas en el anexo de la ley del plan, siempre que dicha modificación no afecte a la naturaleza y a los objetivos de la operación.

CAPÍTULO PRIMERO

CONTENIDO Y DESARROLLO DEL PLAN

***Artículo 1.***– Contenido.

1.– El Plan Vasco de Estadística 2001/2004 tiene como contenido la realización de las estadísticas y otras actuaciones de esta naturaleza incluidas en el anexo de la presente ley.

2.– La configuración de cada una de las operaciones estadísticas a que se refiere el apartado anterior será establecida en los programas estadísticos anuales, con observancia, en todo caso, de las características especificadas en el anexo de la presente ley, en los términos que se deduzcan de la misma para cada una de ellas.

3.– Los programas estadísticos anuales determinarán y definirán las características constitutivas de dichas operaciones estadísticas, en el marco de las dotaciones presupuestarias, ponderando la mayor adecuación a los objetivos generales señalados en el anexo y la eficacia de los recursos económicos disponibles.

4.– Todas las operaciones estadísticas contempladas en los programas estadísticos anuales dispondrán del correspondiente proyecto técnico, o, en su defecto, cuando se trate de operaciones de nueva realización, de un esquema metodológico básico de las mismas. Ambos instrumentos, que establecerán la máxima concreción de las características de cada operación, deberán ser aprobados previamente por el Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística.

5.– Lo dispuesto en los apartados precedentes se entiende sin perjuicio de lo establecido en el artículo 6.2

4/1986 Legearen 6.2 artikuluan ezarritakoa ere bete behar da, hor aipatzen baitira Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko lankidetza-hitzarmenak.

*2. artikulua.–* Noiztik noiz arte indarrean.

Lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoa ere bete behar den arren, Euskal Estatistika Plan honen eta, ondorioz, lege honen indarraldia, legeak indarra hartzen duen unetik 2004. urteko abenduaren 31ra artekoa izango da.

BIGARREN KAPITULUA

PLANAREN ONDORIOZKO ESTATISTIKA JARDUERA

*3. artikulua.–* Zedarriztatzea.

Planaren ondoriozko estatistika-jarduerak hauexek dira: planean bertan jasotako estatistika-eragiketak burutzeko behar diren jarduerak, salbu eta Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko 4/86 Legearen 5.2 artikuluan aipatzen diren administrazio-datuak lortzeko jarduerak.

*4. artikulua.–* Arautzea.

1.– Planaren ondoriozko estatistika-jardueraren araubidea Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko 4/1986 Legearen 2. artikuluan adierazitako arauak eta lege hau izango dira.

2.– Plana garatu eta betetzeko onartzen diren urteko estatistika-egitarauek artikulu horren 1. paragrafoan aipatzen diren erregelamendu-xedapenekin bat egingo dute.

*5. artikulua.–* Informazioa ematea.

1.– Informazioa lortzeko fasea lege honetako 3. artikuluan jasotako jardueretako bat baldin bada, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko 4/1986 Legearen 10.2 artikuluan aipatutako pertsona eta erakundeek derrigor eman beharko dute urteko estatistika-egitarauetan zehazturiko estatistika-informazioa, egitarau horietan bertan zehazturiko moduan.

2.– Horrela lorturiko datuak Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko 4/1986 Legean jasotzen den estatistika-sekretuaren erregimenari loturik egongo dira.

HIRUGARREN KAPITULUA

ESTATISTIKA ANTOLATZEA ETA PLANA BETETZEA

*6. artikulua.–* Eskumena.

1.– 3. artikuluan aipatzen diren estatistika-jarduerak Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistika Antolakundeari dagozkio, Euskal Autonomia Erkidegoko Es-

de la Ley 4/1986, de Estadística de la Comunidad Autónoma de Euskadi, respecto a los convenios de cooperación entre el Estado y la Comunidad Autónoma de Euskadi.

*Artículo 2.–* Vigencia.

Sin perjuicio de lo establecido en la disposición adicional primera, la vigencia de este Plan Vasco de Estadística y, en consecuencia, de la presente ley se extenderá al período comprendido entre el día en que la misma entre en vigor y el 31 de diciembre del año 2004.

CAPÍTULO SEGUNDO

ACTUACIÓN ESTADÍSTICA DERIVADA DEL PLAN

*Artículo 3.–* Delimitación.

Constituyen actuaciones estadísticas derivadas del plan todas las necesarias para la realización de las operaciones estadísticas contenidas en el mismo, a excepción de la actuación correspondiente a la obtención de datos administrativos a que se refiere el artículo 5.2 de la Ley 4/1986, de Estadística de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

*Artículo 4.–* Regulación.

1.– La actuación estadística derivada del plan se regirá por la normativa prevista en el artículo 2 de la Ley 4/1986, de Estadística de la Comunidad Autónoma de Euskadi, y por la presente ley.

2.– Los programas estadísticos anuales que se aprueben en desarrollo y ejecución del plan formarán parte de las disposiciones reglamentarias a que se refiere el apartado 1 de aquel precepto.

*Artículo 5.–* Suministro de información.

1.– Siempre que la fase de obtención de información constituya una de las actuaciones previstas en el artículo 3 de esta ley, las personas y entidades a que se refiere el artículo 10.2 de la Ley 4/1986, de Estadística de la Comunidad Autónoma de Euskadi, tienen el deber de suministrar la información estadística que determinen los programas estadísticos anuales, en los términos señalados en los mismos.

2.– Los datos así obtenidos quedan sometidos al régimen de secreto estadístico a que se refiere la citada Ley 4/1986, de Estadística de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

CAPÍTULO TERCERO

ORGANIZACIÓN ESTADÍSTICA Y REALIZACIÓN DEL PLAN

*Artículo 6.–* Competencia.

1.– El ejercicio de las actuaciones estadísticas a que se refiere el artículo 3 compete a la Organización Estadística de la Comunidad Autónoma de Euskadi, según

tatistikari buruzko 4/1986 Legearen II. tituluan ezarritakoarekin bat eta ondoko arauak kontuan harturik:

a) Lege honen eranskinetan arduradun edo parte-hartzaile agertzen diren organo edo erakundeen eskuetan egongo dira jarduera horiek, aplikagarriak diren arauak betez. Aginpide hori erabiltzerakoan, urteko estatistika-egitarauetan zehazten diren organo edo erakundeen partaidetza eskatuko da, egitarau horietan ezarritako moduan.

b) Gidazerrendak edo fitxategi-gidazerrendak honako hauek egingo dituzte: Euskal Estatistika Erakundeak, berariazko estatistika-organoek (halakorik baldin badago), eta kasuan kasuko arauak betez eskudun den organoak.

c) Berariazko estatistika-organoa beste organo edo erakunde baten barruan egongo da hala sortua, eta, organo edo erakunde horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistika Antolakundeari dagozkion aginpideak erabiliko ditu.

2.– Aurreko paragrafoan xedaturikoak honako muga hauek ditu: Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko 4/1986 Legean, lege honetan eta urteko estatistika-egitarauetan Euskal Estatistika Erakundeari aitortzen zaizkion aginpideak.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

*Lehenengoa.*– Luzapena.

2005. urteko urtarrilaren 1ean beste Euskal Estatistika Plan bat sartu ez bada indarrean, hauxe luzatuko da besterik gabe, hori gertatu arte.

*Bigarrena.*– Izaera bereko beste estatistika eta jarduera batzuk.

Plan honetan jasota ez dagoen beste estatistika edo jarduerarik baldin badago Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionik aginpidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko 4/1986 Legean ezarritako moduan egin ahal izango da.

*Hirugarrena.*– Aurrekontu-erregimena.

Lege honen eranskinetan agertzen diren eragiketak eta helburuak Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorreko edo erakunde-administrazioko organo edo erakundeen ardura baldin badira, finantzaketa Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan helburu horretarako izendatzen diren kredituetan zehaztuko da.

lo establecido en el Título II de la Ley 4/1986, de Estadística de la Comunidad Autónoma de Euskadi, de acuerdo con las siguientes reglas:

a) Corresponderá a los órganos o entes que figuran como responsables e intervinientes en el anexo de la presente ley, con observancia de la normativa que les sea de aplicación. Esta competencia se ejercerá con la participación de los órganos o entes que determinen los programas estadísticos anuales, y en los términos establecidos en los mismos.

b) Los directorios o ficheros-directorios se llevarán a cabo por el Euskal Estatistika-Erakundea/Instituto Vasco de Estadística, por los órganos estadísticos específicos cuando existan, y, en su caso, por el órgano que resulte competente conforme a la normativa aplicable en cada momento.

c) El órgano estadístico específico ejercerá, respecto al órgano o ente en el que esté constituido con tal carácter, las competencias asignadas a la Organización Estadística de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

2.– Lo dispuesto en los apartados anteriores tiene como límite las competencias que se reconocen al Euskal Estatistika-Erakundea/Instituto Vasco de Estadística en la ley 4/1986, de Estadística de la Comunidad Autónoma de Euskadi, y en la presente ley, o se le atribuyan en los programas estadísticos anuales.

DISPOSICIONES ADICIONALES

*Primera.*– Prórroga.

En el supuesto de que al día 1 de enero del año 2005 no hubiera entrado en vigor un nuevo Plan Vasco de Estadística, quedará automáticamente prorrogada la vigencia del presente en tanto ello no tenga lugar.

*Segunda.*– Otras estadísticas y actuaciones de la misma naturaleza.

La realización de otras estadísticas y actuaciones de la misma naturaleza que pertenezcan a la competencia de la Comunidad Autónoma de Euskadi y no estén previstas en este plan podrán llevarse a cabo en los términos establecidos en la Ley 4/1986, de Estadística de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

*Tercera.*– Régimen presupuestario.

Siempre que las operaciones y objetivos incluidos en el anexo de la presente ley correspondan a actuaciones de órganos o entes pertenecientes a la Administración General o institucional de la Comunidad Autónoma de Euskadi, su financiación vendrá determinada por los créditos que a tal efecto se dispongan para esta finalidad en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

***Laugarrena.***– Erakunde arduradun eta parte-hartzaileak.

Jaurlaritzari ahalmena ematen zaio eskatzen duten foru-aldundiak eta udalak lege honen eranskinetan eta urteko estatistika-egitarauetan jasotzen diren eragiketa eta jardueretara biltzeko, lege honen 6.1. a) artikuluan ezarritako moduan, baldin eta parte hartu nahi duten eta eragiketaren aldi edo urratsetan erakunde horietakoren batek lehenagotik parte hartzen badu.

***Bosgarrena.***– Euskal Autonomia Erkidegoaren Estatistikari buruzko Legearen 7. artikulua aldatzea.

Beste paragrafo bat eransten da, 5.a:

7. ***artikulua.***– Urteko estatistika-egitarauak.

5.– Urteko estatistika-eragiketek, salbuespen gisa, planeko eranskinean aurreikusitako ezaugarri batzuk aldatu ahal izango dituzte, Euskal Estatistika Batzordeak aldeko txostena eman ondoren. Aldaketa horiek arrazoituak izan beharko dute, eta ezin izango dituzte eragiketen izaera eta helburuak ukitu.

AZKEN XEDAPENAK

***Lehenengoa.***– Garatzea eta betetzea.

Plan hau urteko estatistika-egitarauen bidez garatu eta beteko da, egitarau horien gaien eremuan, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko 4/1986 Legearen arabera hartarako aginpidea duten organoek onartzen dituzten erregelamendu-xedapenen bidez.

***Bigarrena.***– Indarrean jartzea.

Lege honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hartuko du indarra.

**Ale Gehigarri bereizian argitaratzen dira aipatutako zerrendaren Eranskinak**

Beraz, Lege honi men egiteko eta men egin arazteko agintzen diet, norbanako zein agintari direla, Euskadiko herritar guztiei.

Vitoria-Gasteizen, 2002ko apirilaren zan.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

***Cuarta.***– Organismos responsables e intervinientes.

Se habilita al Gobierno para incorporar a las operaciones y actuaciones previstas en el anexo de la presente ley y programas estadísticos anuales a las Diputaciones forales y Ayuntamientos que lo soliciten, en los términos del artículo 6.1. a) de la presente ley, en las fases de las operaciones en las que ya hubiera participación de alguno de aquéllos.

***Quinta.***– Modificación del artículo 7 de la Ley 4/1986, de Estadística de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Se adiciona un apartado 5, nuevo:

*Artículo* 7.– Los programas estadísticos anuales.

5.– Los programas estadísticos anuales podrán modificar, excepcionalmente, alguna de las características previstas en el anexo del plan, previo informe favorable de la Euskal Estatistika-Batzordea/Comisión Vasca de Estadística. Dicha modificación habrá de ser motivada, y no podrá afectar ni a la naturaleza ni a los objetivos de la operación.

DISPOSICIONES FINALES

***Primera.***– Desarrollo y ejecución.

El desarrollo y ejecución de este plan se llevará a cabo mediante los programas estadísticos anuales, en el ámbito material propio de éstos, y a través de las demás disposiciones reglamentarias que se aprueben por los órganos que resulten competentes conforme a la Ley 4/1986, de Estadística de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

***Segunda.***– Entrada en vigor.

La presente ley entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

**En Suplemento aparte se publican los Anexos de la relación que se cita**

Por consiguiente, ordeno a todos los ciudadanos y ciudadanas de Euskadi, particulares y autoridades, que la guarden y hagan guardarla.

En Vitoria-Gasteiz, a 2 de abril de 2002.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.